

A5448



Zertan ari gara?

Eskolaurrea • Haur Hezkuntza • Lehen Hezkuntza • Bigarren Hezkuntza • Batxilergoa • Heziketa Zikloak

La Salle

Eskolaurrea eta Haur Hezkuntza



La Salle Ikastetxe bateko hezitzaileentzat pertsonak dira inportanteenak, ikasleak, mutil edo neska, haur, gazte edo heldu izan.

Heziketa bidean dabilen pertsona hori da gure dohainik preziatuena eta bere heldutasun prozesuan dihardugu gure indar guztiez, formazioak, ikuspuntu honetatik begiratuta, pertsonaren osotasuna hartzen baitu kontuan. Osotasun den pertsona, bere osotasunean.

Lehen Hezkuntza



La Salle Ikastetxe sareak baloreetan oinarritutako heziketa-eskaintza egiten du, pertsonaren arlo guztiak kontuan hartu nahi dituelako hain zuzen. Ikasleen adimena hezi nahi du, eta beraien bihotzera iritsi, etorkizunean profesional eta herritar onak izan daitezen. Besteak kontuan hartuko dituen pertsona hezi nahi du, gizarte eta mundu zuzenago baten alde jokatzeko duena, ondasunak hobeto banatuta egon daitezen. Ongi informatutako pertsona hezi nahi du, eta eskaintzen zaiona kritikoki baloratzeko gauza izango dena. Komunikabideei adi, ikusten eta jasotzen duena irakurtzen ikasiko duen pertsona, ikuskizun batera joan, erakusketak bisitatu, kontzertuez gozatu eta lagunen arteko jaietan esku hartzeko gauza izango dena.

Bigarren Hezkuntza



La Salle Ikastetxeetan ematen den heziketa ikus eta uki daitekeenetik haratago doa. Kontuan hartzen du pertsonaren zentzu traszendentea, eta Jesus, guztiei zor diegun maitasun eta begirunearen eredu bezala.

Aurkezpena.

Batxilergoa



Salleko San Joan Bautistak (Reims, Frantzia 1651-1719) honako hitz hauekin adierazi zuen, bere garaiari aurre hartuta, Jesus Artzain Onari buruz hitz egiterakoan, bere asmoa: "Ikasleak banan-banan ezagutu eta beraiekin indibidualki jardutea behar du izan heziketa lanetan dabiltzanen kezkarik nagusienetakoa".

Pentsakera horrekiko leialtasunean, La Salle Ikastetxeetako HEZITZAILEAK, Anaia zein Sekular, ildo horretan ari dira, eta ikasleei irakaskuntza araututik urrunago doan erabateko heziketa ematen saiatzen dira, sormenez eta jator, pertsonaren arlo guztietara iristeko asmotan. Hauxe da helburua: herritar onak prestatzea, kritikarako gai direnak, libre eta autonomoak, besteen eskubideekiko begirunean.

Heziketa Zikloak



Heziketa eskaintza hau eskola ingurunetik haratago doa, eta milaka dira gure ondoan eta mundu osoan zehar bere bizimodua duintasunez aurrera ateratzen ikasi dutenak, nor bere tokian.



La Salle Ikastetxeetako Berezko Izaerak sasoi eta egoera berrietara egokitzen bultzatzen gaitu, gure heziketa eredua gaurko neska-mutilen premien arabera izan dadin. Arlo honetan ere etorkizunari begira jarraitzea da gure erronkarik nagusiena.



Eskolaurrea (0-3 urte) eta Haur Hezkuntza (3-6 urte)

Ikasketa erraztu nahi duten programa berritzaileak.

Orain dela urte batzuk, La Salle eskoletan gure heziketa eskaintza osatzen duten programa propioak garatzen ari gara. Berrikuntza programak dira Haur Hezkuntzatik aurrera erabiltzen direnak neska-mutilek, haurtzarotik hasita, ikasketa prozesua erraztuko dieten baliabideak eta tresnak izan ditzaten.

Hezkuntza premien arabera, gure ikasleak suspertzen saiatzen gara, horretarako programa egokien bitartez: ULISES - adimena suspertzeko -; OPTIMIS - adimen gaitasunen barneratze mailakatua -; MAPPING - sintetizatzen ikasteko, mapa kontzeptualen bitartez -; LATERALITATE ZIRKUITUAK - ariketa motoreak, haurrak nerbio-

sistemaren garapena urratsez urrats egin dezaten -; eta CREA-SORTU - sormena sustatu eta adimena suspertzeko -.

Aspaldidanik ere, zenbait estrategia erabiltzen dugu ikasketa erraztu eta norberari arreta are indibidualizatuagoa eskaintzearen, talde txikian egindako lanak, ikasketa txokoak eta jolasak lagungarri ditugula. Horrez gain, gela bakoitzerako egitasmoak egiten ditugu, haurrek ikasi berria aurretik ikasitakoarekin erlaziona dezaten.

Eskolaurre eta Haur Hezkuntzako La Salle Ikastetxeak:

Gipuzkoan: La Salle Berrozpe. Andoain; La Salle San Jose. Beasain; La Salle San Marcial. Irun; La Salle Isasi. Eibar; La Salle. Donostia; La Salle San Luis. Donostia; La Salle San Jose. Zarautz; La Salle-Legazpi. Zumarraga-Urretxu.

Bizkaian: La Salle. Bilbao; Begoñako Andra Mari. Sestao.

Errioxan: La Salle El Pilar. Alfaro.

Zaragozan: La Salle Montemolín.



Hauxe dugu helburu: gure eskoletako haurrek bere kabuz ikas dezatela ikasten.



La Salleko Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak:

Gipuzkoan: La Salle Berrozpe. Andoain; La Salle San Jose. Beasain; La Salle San Marcial. Irun; La Salle Isasi. Eibar; La Salle. Donostia; La Salle San Luis. Donostia; La Salle San Jose. Zarautz; La Salle Legazpi. Zumarraga-Urretxu.

Bizkaian: La Salle. Bilbao; Begoñako Andra Mari. Sestao.

Errioxan: La Salle El Pilar. Alfaro.

Zaragozan: La Salle Montemolín.

Lehen Hezkuntzan eskolak toki guztiz pribilegiatua betetzen du ikaslearen bizitzan. Bertan ikasten du ikasten, besteekin erlazionatzen, sozializatzen, aurkikuntzaren munduan sartzen.

Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

Eskola, giza eta hazkunderako eremu.

La Salle Ikastetxeetan egokitu egiten dugu gure kurrikuluma inguruneko giza-, kultura- eta hizkuntza-premiei erantzuteko.

Jarrera integratzaileak sustatzea da gure helburuetako bat. Horretarako, guztien arteko harreman aberatsak bultzatzen saiatzen gara, hauren zentzu kritikoa garatuko dutenak. Guretzat guztiz beharrezkoa da haurrei ardurakizunean, justizian, tolerantzian eta sormenean oinarritutako erabateko heziketa integratzailea ematea. Horrez gain, eskolaz kanpoko heziketa lantzen dugu, kirola, kultura, bizikidetasuna eta aisialdia bitarteko ditugularik. Jarduera eta harreman horietan ikasleak dira protagonista nagusiak.



Bigarren Hezkuntzako La Salle Ikastetxeak:

Gipuzkoan: La Salle Berrozpe. Andoain; La Salle San Jose. Beasain;
La Salle. Donostia; La Salle San Luis. Donostia;
La Salle Azitain. Eibar; Irungo La Salle. Irun;
La Salle San Jose. Zarautz; La Salle Legazpi. Zumarraga-Urretxu.

Bizkaian: La Salle. Bilbao; Begoñako Andra Mari. Sestao.

Errioxan: La Salle El Pilar. Alfaro;
Nuestra Señora de la Estrella. San Asensio.

Zaragozan: La Salle Montemolín; La Salle F. Gran Vía.



Sasoi hau guztiz erabakigarria da gure ikasleei erabateko heziketa integrala emateko, etorkizunari begira, erabakiak hartzeko gauza izan daitezen.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

Sormena, laguntza, arreta.

Sasoi hau guztiz erabakigarria da gure ikasleei erabateko heziketa integrala emateko, etorkizunari begira, erabakiak hartzeko gauza izan daitezen.

Gure eskoletan buru-belarri jarduten dugu neska-mutilen heziketan, behar hainako ezagutza eta adimen gaitasunak lor ditzaten. Horretaz gain gizartean zeregin eraginkorra betetzeko hezten ditugu.

Berrikuntzarako erakutsi dugun sentiberatasunak etengabeko eboluzio eta aldaketa prozesuan dagoen gizarte batean txertatzeko prestatzen ditu gure ikasleak. Hori lortu ahal izateko jartzen ditugu euren eskuetan baliabide teknologiko

egokiak eta premiazko ekipamenduak. Gure hezkuntza egiturari, hasierako formazio orokorrean oinarrituta egiten dugu arloen adarkatze progresiboa, ikasleen gaitasun eta hautabideei adi, ikasle bakoitzari ematen zaion heziketa, ahalik pertsonalizatuena izan dadin.

Etapa honetan, irakasleen lankidetzak garrantzi ikaragarria dauka ikasleei eta familiei etorkizunerako ildoak aukeratzeko laguntzeko momentuan. Gure zerbitzurako borondateak forma guztiz berezia hartzen du banakako tutoretzaren orduan, norberaren inguruneari lotua izaten saiatzen baita eskolan, familian eta gizartean.





Guztien eskuhartzean oinarritutako batxilergoak, norberaren jarraipen pertsonalari eta geroko goi-mailako ikasketei begira.

Batxilergoa (16-18 urte)

Giza kalitatea etorkizuna prestatzeko.



Batxilergo La Salle Ikastetxeak:

Gipuzkoan: La Salle Berrozpe. Andoain;
La Salle. Donostia; Irungo La Salle. Irun;
La Salle Azitain. Eibar.


Bizkaian: La Salle. Bilbao.

Zaragozan: La Salle F. Gran Vía; La Salle Santo Ángel.

Gure irakaskuntza zuzeneko eskuhartzean oinarrituta dago: ikaslea da bere formazio prozesuko protagonista nagusia. Garrantzi handia ematen diogu lanari, esfortzuari, ikasleen eta irakasleen arteko harremanen munduari. Batxilergo garaian ikasleek aholkularitza pertsonalizatua izango dute, arduratsua, benetazkoa, unibertsitate ikasketak edo Goi Mailako Heziketa Zikloak aukeratzeko orduan. Une berean beren lehentasun profesionalak ezagutzen laguntzen dieten saio kolektibotan eskuhartzen dute.

Hau da gure helburua: gure ikasleek kalitatezko giza formazioa izan dezatela eta baita aberastasun handia ere baliabide teknologiko eta pedagogikoen alorrean. Horrela dihardugu, etorkizunak egiten dizkien erronkei aurre egiteko gauza izan daitezen.

Tutoretza pertsonalizatua ezinbesteko baliabidea da ikaste saioak antolatu eta lan-ohiturak hartzeko orduan. Nortasunaren arloan, bizikidetasunek, kultur-irteerek, txangoek eta kristau fedearen ospakizunetan eskuhartzeko aukerak aberastu egiten dute giza formazioa. Gazteen zerbitzuan daukagun esperientzia luzeak gure ikasleak etorkizunerako prestatzen laguntzen digu, arrakastatsu izan daitezen.



Gure Lanbide Eskolek gaurko profesionalak prestatzen dituzte.

Lanbide Eskolak

Lanbide Hastapeneko Zikloak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak (16 urtetik gorakoak)
Goi Mailako Heziketa Zikloak (18 urtetik gorakoak)

Gure gizartean ezarri diren teknologia berriak eta gizarteak duen espezialisten beharra kontuan hartuta, gure Heziketa Zikloetako ikasleei honako profila ematen saiatzen gara: eraginkortasunarena, aldakortasunarena eta egokitzapen-gaitasunarena. Tresneria berriak menperatzeko gaitasun teknikoetatik aparte, Ziklo hauek guztiz baliagarriak dira lana planifikatzen, koordinatzen eta kontrolatzen ikasteko.

La Salle Ikastetxeek ezaugarri guztiz bereziak dituzte: besteak beste, berrogeita hamar urtetik gorako esperientzia; enpresen munduarekiko lotura estua; punta-puntako teknologia, eta ingurunearen premiei erantzuteko gaitasuna.

Praktika guztiak taldean egiten dira eta badago Enpresa-Poltsa bat praktiketako hitzarmenak kontuan hartzen dituen. Era berean eskaintzen dira Europako beste zenbait naziotan praktikak egiteko aukerak, eta Lan-Poltsa bat. Ikasleari arreta pertsonalizatua ematen zaio eta geure orientabide kabineta daukagu.

Erabateko formazio integrala, merkatuko eskakizunei egokitu.


La Salle Ikastetxeetako Lanbide Eskolak:

Gipuzkoan: La Salle Berrozpe. Andoain; Irungo La Salle. Irun.

Zaragozan: La Salle Santo Ángel.

Huescan: Nuestra Señora de Guayente. Sahún.

**"Teknikari ona izateko giltzarriak:
gaitasun teknikoa, giza formazioa eta
egokitzapen-gaitasuna."**



La Salle heziketa eskaintza bost kontinenteetan zabaldurik dagoenez, aukera ezin hobea ematen digu mundua bere orokorrean ikusteko eta ikasle-trukaketak egiteko mundu zabalean. Horri guztiorri, eta profesionalen laguntzari esker, Anaia zein Sekularrak izan, gure Ikastetxeetan ikasitako Teknikariek eta Goi Mailako Teknikariek posible izan dute prestigio eta izen handia eskuratzea eta lanaren munduko ateak zabal-zabalik aurkitzea, formazio akademikoan ongi trebatuak izateaz gain, beraien giza baloreengatik ere ezagunak baitira.

Formazioari begira...

Iritsi zara liburuska honen amaierara. Beharbada zera galdetuko diozu zure buruari, ea hemen aurkeztutakoez gain, ba ote dugun beste hezkuntza-eta kultura-aukerarik. Hemen modu orokorrean aurkeztu ditugu, generikoki. Gehiago jakiteko jo ezazu hurbileneko La Salle Ikastetxera edo sar zaitez gure saregunean: <http://www.lasalle.es/bilbao/>

Kirol ekintzak: La Salle Ikastetxeek kirol arlo askotan eskuhartzen dugu: futbola, saskibaloia, atletismoa, txirrindularitza eta abar luze batean. Aukera handia baitago.

Aisialdia: aisialdirako ekintza ugari programatzen dugu: txangoak, udako kanpaldiak, koloniak ...

Bizitzari buruzko gogoeta egiteko aukera ere eskaintzen dugu, trszendentziari, bizitzaren zentzuari, otoiari eta Ebanjelioari irekita bizi nahi dutenei dagokien bezala. La Sallek gogoeta taldetan eskuhartzeko aukera ematen dizu.


Nazioarteko laguntza proiektuak: garapen bidean dauden lurraldeetako errealitatera hurbilizen gara Tandanacui taldeen eta PROYDE-PROEGA GKEren bitartez, lagundu egiten baitigute lurralde pobreenekiko sentiberatasuna eta konpromisoa sendotzen: Republika Dominikana, Ekuador, Eritrea ... besteak beste.

Gure ingurunearen giza errealitatea. Gizarte, hezkuntza edo ekonomia mailako ingurunearen ezagutza eta behartsuenekiko lankidetzatza bolondres taldeetan jardunez burutzen dugu, eta ikasturtean zehar helburu horrekin antolatzen diren kanpainetan eskuhartuz.

GURASO ELKARTEAK guztion zerbitzuan daude eta buru-belarri dihardute La Sallek antolatzen dituen hezkuntza jarduerak sustatzen, gauden herri eta hirietan.

Egiozu aurre geroari La Sallerekin!

Eta orain, amaierara heldu zarenean, hau esatea besterik ez zaigu gelditzen: La Sallen gaurko neske mutil gisa garatzeko behar duzuen guztia aurkituko duzue, geroko gizon-emakumeen zereginei begira. Etorkizuna eskolan hasten baita eta La Salle Ikastetxeek etorkizun hobeto batean sinesten baitute.



Ikastetxe sare bat zugandik hurbil.



ARAGOI Huesca



SAHÚN
Ntra. Sra. De Guayente
Tel. 974 551 327
nsguayente@planalfa.es

Zaragoza



ZARAGOZA
La Salle F. - Gran Vía
Tel. 976 306 060
lasallefz@planalfa.es



ZARAGOZA
La Salle Montemolin
Tel. 976 416 306
ismontemolin@planalfa.es



ZARAGOZA
La Salle Santo Angel
Tel. 976 753 718
diresaz@lasalle.es


EUSKADI Gipuzkoa



ANDOAIN
La Salle Berrozpe
Tel. 943 590 557
lsbandoin@lasalleberrozpe.com



BEASAIN
La Salle San Jose
Tel. 943 880 139
lsallesjb@planalfa.es




DONOSTIA
La Salle
Tel. 943 454 400
lasallesdes@planalfa.es



DONOSTIA
La Salle San Luis
Tel. 943 396 709
zuzendaria@sanluislasalle.com



EIBAR
La Salle Azitain
Tel. 943 121 698
lsallensae@planalfa.es



EIBAR
La Salle Isasi
Tel. 943 120 213
salleisasi@planalfa.es



IRUN
Irunga La Salle
Tel. 943 628 411
irungolasalle@lasalle.org



IRUN
La Salle San Marcial
Tel. 943 639 040
lsallesmi@planalfa.es



ZARAUTZ
La Salle San Jose
Tel. 943 130 060
heczarautz@planalfa.es



ZUMARRAGA-URRETXU
La Salle Legazpi
Tel. 943 721 514
legiasalleiz@planalfa.es

Bizkaia



BILBAO
La Salle
Tel. 94 44 70 950
lsallesab@planalfa.es



SESTAO
Begoñako Andra Mari
Tel. 94 49 63 832
nsbsestao@lasalle.es

Errioxa



ALFARO
La Salle El Pilar
Tel. 941 180 187
lsallepa@planalfa.es



SAN ASENSIO
Santa Maria de la Estrella
Tel. 941 457 169
smestrella@planalfa.es



www.lasalle.es/bilbao/

La Salle